

EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAREN AGURRA

Karlos GARAICOETXEA

Agintari, Euskaltzain, Euskalari eta Jaun-andre guztiok: Agur guztioi.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietara agertzeko gomita egin zidanean Euskaltzaindiak, ez nuen, une batez ere, zalantzik egin: egiten zidan ohoreari baietz erantzun nion. Ez, noski, nere presentziak, Jardunaldi hauetan aztertu eta eztabaidatuko diren gaietarako, aberastasun barririk ekar zezakeela pentsatzen nuelako. Baizik eta, besterik ezean, euskeraren alde gure artean, hemen Euskal Herrian, eta hortik zehar, mundu zabalean, euskeraren aldeko lanetan diharduzuten euskalari guzioi, Euskal Herri osoaren eskerrik beroenak agertzeko aukera ematen zidalako hona etortzeak.

Hortaraxe etorri naiz, lehenik eta batez ere: eskerrak ematera. Lurren eta jende txikia den Euskal Herri honek, norbaitzuentzako bada, bere hizkuntzaren alde diharduten guztientzako bihotz haundi eta zabala duela agertzera. Nik hemen, zertaz esanik ez badut ere, zuek ba dakizute zenbateraino Herri honek bere hizkuntza maite duen. Bere izaeraren funtsa eta izateko arrazoi beraren gakoa hor ikusten eta sentitzen ditu Herri honek. Horregatik, nola ez eskertu zuen, sarri eskergabeko –esker txarreko ez denean– lan desinteresatu hori?

Egin duzuten lanagatik, beraz, eskerrik asko. Munduko edozein txokotan egiten duzutela ere lan hori, oraindik ere bizi den, bizi nahi duen eta biziko den Herri txiki honek ez zaituztela ahazten.

Lehendabizi, beste lurralde batzuetatik etorri zareten auskalariei, nere eskerrik sentikorrenak. Eta zuentzat, gure arteko, etxeko, euskalarientzat, nola ez, baita, eskerrik beroenak izan?

Euskal Herriak ba daki –nahiz eta ezetz beharbada, jakin behar lukeen hainean– zer nolako eragozpenak eta zailtasunak gainditu behar izan dituzuten euskeraren aldeko zuen lanean. Era askotako zailtasunak: persegizioa ez

zenean, mesprestua zen edo kasorik eza. Inoiz ez behintzat zor zitzaizuen laguntza babesa.

Eta oroipen berezi bat izan nahi nuke, nola ez?, urteak zehar setatsu, irmo, itxaropenez lanean aritu den Euskaltzaindiarentzat. Bere bizian zehar hainbat zor dugu euskaldunok berarekin! Azkena, une hontan bertan, hasten ari garen Jardunaldi hauek antolatu izana.

Eskerrik asko zuen lan guziagatik.

Ez zarete, bainan, orain arte egindako lanaz hitzegitera eta solasaldiak izatera bakarrik bildu zuek. Eta ez nuke nik ere orain arteko lanarekiko esker ona agertze hutsera nere hi zalditxoak bildu.

Jardunaldi hauetako azken txostena, oker ez banago, aurrera begira dauden iker premietaz izango da.

Bizi dugun momentu honetan, zerbaitetaz bada, premietaz hitzegitea tokatzen zaigu euskaldunoi. Premi larrietaz, esango nuke nik. Eginak egin, egitekoak, zoritxarrez, oraindik ere handiagoak dira, biziko bagara, iraungo eta aurrera egindo badugu.

Era askotako premiak. Zuek Jardunaldi hauetan Euskera-hizkuntza beraren premietaz hitzegingo duzute. Hizkuntzak berak, gaurko gizarte modernoaren beharkizun guztietara gaitzeko oraindik ere dituen premietaz. Handiak dira, bistan dago, gauza hoietaz guk geuk gehiegi ulertzen ez badugu ere. Bainan itxuenak ikus dezaken zerbait da hori. Gizarte modernoaren konplexotasunak, esfortzu handia eskatzen dio hizkuntza bati, atzeratua, mugatua eta ondorioz, txokoratua geldituko ez bada. Gure hizkuntzak, euskerak, berriz, denok ezagutzen ditugun arrazoiengatik, ez du eraman guk gaur nahi izango genukeen abiadarik eta, ikuspegi hontatik, zaharkitua gelditu zaigu zenbait gauzetarako.

Gaurkotu, gaitu, bizitza modernoa eramateko gauza egin ... premi handiak, lehen esaten genuenez. Eskoletarako. Unibertsitaterako, komunikabideetarako, etxebarrurako eta kanporako, kaleetarako, lantegietarako, ...toki guztietarako gaitu behar dugu. Duzute, hobeki esan. Hori zuen lana bait da, batez ere. Zuen ikerlanek, izan behar dute gure gidari.

Gure egitekoa besterik da: lehenik, euskeraz egin, saiatu egiten, kostala hala kostala, nonahi eta nornahirekin. Esan behar bait da hau, eta ozenki eta goraki esan ere, gure egunotan. Euskeraren aldeko desafioa, edo denok irabazten dugu, edo denok izango gara galtzaile. Euskeraren aldeko hitz eta esaldi politetatik, ekintzetara pasa behar dugu. Denok. Hor dago gure etorkizunaren gakoa.

Bainan ez dut, ez, ahaztu nahi Eusko Jaurlaritza berri baten Lehendakaria naizenik eta Eusko Jaurlaritza honek ba dituela, baita, bere erantzukizun bereziak.

Herri batengandik agintea jaso duenak, herri horren premiei erantzutea du lege. Eta hortik datoz gure erantzukizunak.

Bistan da, bizi duen egoera larritik aterako bada euskera, besteak beste, herri hontako agintariak ere beren bi besoz heldu beharko diotela lanari eta garbi jakin beharko dutela lan hori nondik eta nora eraman. Jaurlaritza honek nondik nora eramateko asmoak dituen esan nahi nizueke, guztiz laburki izango bada ere, zuei askozaz denbora gehiago ez jateko.

Lehenik, eta beste ezertxoren aurretik, zera esan behar da. Jaurlaritza honek ez duela ulertzen euskerarik gabeko Euskadirik. Beraz, eginahal guztiak egingo dituela Euskal Herria euskalduntzen. Eta ez duela etsiko, gainera, zutik dirauen artean.

Euskalduntze prozesu honek zutabe hauek izango ditu:

- Irakaskuntza.
- Giza komunikabideak.
- Administralgoa.

Ez naiz orain alor bakoitzean zein pauso ematera goazen esaten hemen hasiko. Luzeegi joanaz, zuen denbora aberatsa alferrik galtzen joateko harriskoa izango nuke. Bainan bai, jakin, neurri gogorrek hartu behar direla pentsatzen dugula. Ez dagoela euskerari buruz brometan ibiltzerik, benetan euskera aurrera atera nahi bada, behintzat.

Horregatik, prozesu mailakatu bat eraman beharko badugu ere, bene-tazko prozesu bat izango da martxan jarriko duguna. Alor guztietan. Kolpetik denari helduaz ito egin gindezke. Pauso makalegiak emanaz, berdin. Asmatu beharko dugu, beraz, prozesu mailakatu hori martxan jartzen. Irakaskuntzan, zein gizakomunikabideetan, zein administralgoa euskalduntze lanetan. Jakin beharko dugu nondik hasi, oinarriak non bota, zutabeak non jarri, ormak nola altxa; azkenean gure etxea teilatu euskaldun batek burutu dezan.

Eta amaitu aurretik, dei bat egin nahi nuke.

Batzutan, ba dirudi, Jaurlaritza batek har ditzakeen neurrietan fede itsu bat -itsuegi bat- ez ote duen zenbait jende. Neurri eta erabaki hoiak, berez, euskeraren salbamena ekarri beharko -derrigorrez- balukete bezala. Zenbait, areago joan ohi da oraindik. Zenbait, besoak tolestatu, eta bere eserlekutik begira jartzen da, zer pasako denaren zai.

Eta ez. Esan behar da argi ta garbi, ezetz. Ez Jaurlaritza honek, ez inork ezingo duela bere neurriekin euskeraren arazoa konpondu, baldin eta euskaldun guztiok jartzen ez bagara serio lan horretara. Horregatik Jaurlaritza honen betiko asmoa da, euskeraren alde lan egin nahi duen guztiari dei egitea eta denekin elkar lanean jartzea. Edo-ta zuek zuen ikerketekin eta lanekin jarraitzen duzute, artelariak beren artelanekin, antzerkilariek beraienekin, kantariak beren kantagintzarekin, idazleek berdin, irakasleek, andereinoek, ...etabar guztiak beraienekin, edo-ta hemen ez da milagrorik izango.

Barka hain hitz gogor eta xinplekin hitzegitea. Bidezko iruditu zait. Zailantzik gelditu ez dadin. Jaurlaritza honek ez die bere erantzukizunei uko

egingo. Bainan guztion laguntza itxaroten du; alderdi eta Jaurlearitza guztien gainerik dagoen helburu honetarako: Euskal Herri euskalduna aurrera atera.

Eta besterik ez. Luzeegi aritu banaiz, jakingo duzute barkatzen. Jardunaldi hauetan zuek duzute hitza. Zuen lanaren fruituen zai gelditzen gara guztiok.

Eta haserakoa: eskerrik beroenak, berriro ere, guztioi, etxeko, nahiz mugaz harundiko, euskalarioi.